

# Txistua Bigarren Hezkuntzan, zergatik ez?

## Kasu praktiko bat



Xabier Olazabal Etxegia

**I**rakasle lana ez da erreza. Irakasleak dituen gaitasun eta jakintzetan oinarritu behar du irakasle orok. Baina hori esatea erraza bada, zaila betetzen. Jakintzaren ataletako bat musikarena dugu eta berau zabaltzea da musika irakasleon lana. Txistu klase gehienak banakakoak izaten dira, hau da, irakasle bat dago ikasle bati erakusten. Egia esan, hori da edozer ikasteko biderik aproposena, irakasleak bere arreta guztia ikasle bati bakarrik bideratu behar baitio. Baina ez da beti horrela izaten.

Badaramatzat pare bat urte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) musika irakasten. Ez da erraza, taldeak 20 ikasletik gorakoak direlako beti (eta ikasle bat izan edo 20 izan oso, erabat, ezberdina da). Aurten, eta hurrengo kurtsoan, Bizkaiko Abanto-Zierbena herrian ari naiz, Gallartan dagoen Dolores Ibarruri BHI-n.

Inguruko herrietan txistuaren militanteak badaude, asko gainera (Euskal Herrian non ez?), nire ikastetxeko idazkaria bezala, Portugaleteko Jon Iñaki Carnicero, baina txistuak (Euskal Herrian gertatzen den antzera) arazoak ditu kalean duen presentzia mantentzeko eta herriko musika eskoletan osasuntsu jarraitzeko. Hala ere, egiten den lana ez da txikia, urtero asko baitira txistuaren inguruan izaten diren kontzertu naiz kalejirak, Portugalete, Muskiz edo Barakaldokoa bezalako alardeak esaterako.

Azken urte hauetan txistuak duen arazo larriena, nire ustetan behintzat, musika eskoletan izan den matrikulazioaren jaitsiera da. Oso arazo larria da, goi mailako ikasketak egin ditugunon artean asko eta asko musika eskola horietan aritzen baitira lanean. Ikaslerik ez egotekotan, irakaslea soberan egongo litzateke. Hori baino gehiago, egun txistuak gure gizartearen duen presentzia eskasa (zenbait lekutan presentzia hori hutsala den bitartean) ez da areagotuko baldin eta umerik ez badago txistua ikasten, txistuaz gozaten, eta ondorioz, gure instrumentua galbidean litzateke. Beste arazo kezagarria, nire ustetan, musikako eskoletan aritzen diren txistu ikasleek txistuaz egiten duten erabilera da. Gallartan esaterako, institututik oso hurbil, txistu ikasketak burutu daitezke Abantoko Musika Eskolan, baina oso zaila da ikasle horiek, bai kalean edo institutuan bertan, bai dantza taldeetan edo kontzertuetan, txistua jotzen ikustea. Beste musika tresnekiko lehia? Jotzeko lotsa? Ikasketak

mota akademikoegia izan liteke? Erakargarritasun falta? Gizartearen aldaketa? Adina? Batek daki! Abantoko Musika Eskolako zuzendaria, Txaro Garcia, goi mailako txistularia da, eta, beste txistulari profesional asko bezalaxe, gure musika tresna bultzatzen aritzen da, baina, lehen esan dudan moduan, txistuaren presentzia, zoritxarrez, kostata mantentzen da.

Nafarroako txistulariak txistua dagokion mailan jartzen saiatzen ari gara, beste edozein txistulariaren antzera. Makina bat lan, bilera, dossier, txosten... egin dugu azken urte hauetan txistuak gizartearen duen presentzia areagotu nahian. Eta lan hau bere fruituak ematen ari da, egun Nafarroako zein Iruñeko agintariekin dugun harremana oso hurbilekoa baita eta gainera, hainbat entitate pribatuk, Laboral Kutxak edo Lacturak esaterako, urtez urte beraien babesak erakusten baitigute egiten ditugun ekintzak aurrera ateratzeko. Egin dugun proiektuaren bat ez da txistulari munduan oso onartua izan, eta badakigu, baina saiatzen ari gara: txistuak duen egoera hobetze aldera lanean dihardugu.

Arazo honi aurre egiteko moduetako bat bigarren hezkuntzan, musika ikasgaiaren, txistua lantzea da. Pasa den urtean eman zen bukatutzat "TXISTU ONLINE" proiektua (nahiz pandemia honengatik ez den aurkeztu oraindik). Nafarroako zein Eusko Autonomi Elkarteak gobernuen subentzioak jaso ondoren aurrera atera den proiektu hau musika eskola zein bigarren hezkuntzan erabiltzeko prestatua izan da. Neronek, txistularia izanda, saiakera egin dut Gallartako institutuan, hau da, DBHko lehen mailako 4 taldetan (84 ikasle) txistua landu dut. Aldez aurretik esan behar dut ikastetxeko zuzendaritzaren laguntza izan dudala (ziur naiz Jon Iñaki Carnicerok horretan zerikusia baduela, bera, arestian esan dudan moduan, bertako zuzendaritza taldeko partaidea baita) zeinaren babesik gabe ez baitzen proiektua aurrera aterako. Eta emaitzak uste baina hobek izan dira.

Kurtso bukaeran ikasleei hainbat galdera egin zitzaizkien musika saioetan burututako lana ebalua zezaten. Aldez aurretik esan beharra dago 84 ikasle horietatik 10 ez direla berrogeialdi garai osoan internetera konektatu ere egin eta, ondorioz, ez dutela galdetegia ez ikusi, ez erantzun. Horrela, 74 ikasle horietatik 52k erantzun dute, hau da, ikasleen %70ak. Ikasle horietatik %53,8ari txistua musika saioetan

lantzea gustatu zaio, %40,4ari berdin zaio eta %5,8ari (3 ikasleri) ez zaie gustatu [1. irudia].

Hurrengo galderan TXISTU ONLINE programa baloratzeko eskatu zitzaion. Honatx erantzunak: [2. irudia]. Ikus daitekeenez, 8 ikasleren ustez programa ez da erakargarria baina gainontzeko 44 ikasleek gustuko izan dute.

DBHko 1. mailan institutuan 2 saiotan lantzen da musika astean, bakoitzak 55 min irauten duelarik. Ez da denbora lar baina hori da dagoena eta horrekin aritu behar. Osotara 110 minutu dira eta horietatik txistuaz 30 minutu inguru programatu ditut (saio baten erdia gutxi gora behera): [3. irudia].

Ikus daitekeenez, ikasleen %55,8ak nahikoa dela uste izan du. Baina erantzunik positiboena %36,5ak denbora gehiago dedikatuko liokeela jakitea da. Benetan albiste ona da. Eta oraindik hobea da jakitea 52 ikasle horietatik 29k etxean txistua noizbait edo astero jo dutela jakitea: [4. irudia].

Ez du asko ematen, baina nire ustez oso-oso emaitza ona da. Hori diot nik, ez ditudalako behartu etxean jotzera. Gomendatu bai, baina behartu ez. Beraien kabuz egin dute, inork behartu gabe. 30 minututan ikasle bakoitzari minutu bat eskaini diezaioket: poxpolina nola hartu, behatzak non jarri, nota bakoitzaren digitazioa zein den gogorarazi eta zer nota jotzen ari diren entzutearekin konformatu behar dute. Honekin txirrinta sortzen zaie eta etxean jotzen dute. %81aren ustez txistua jotzen ikasten ari da: [5. irudia].

Nahiko nuke ikasle horietatik bat bederen txistua ikasten hasiko balitz musika eskolaren batean. Hori ez dago nire esku, baina txirrinta sortzen saiatzea bai, eta horretan jarraituko dut.

Baina ez da dena horren positiboa. Irakaslearentzat, niretzat kasu honetan, oso gogorra da 20 edo 22 txistu batera entzutea. Gehienek ez dute artikulatzen (nahiz behin eta berriz saiatu hori azaltzen), ez dute beraien haize kantitatea kontrolatzen eta ez dakite zein nota jotzen ari diren. 7m x 6m inguru dituen gela itxi batean sortzen den zarata jasatea ez da erreza. Ezin esango dut musikalki emaitza positibo askorik eskuratu dudarik. Baina ikasleen erantzuna nik uste baina askoz hobea izan da. Ez dute txistua gorrotatzen eta instrumentua fisikoki ezagutu dute. Argi dago lan ildo honetan jarraitu beharra dagoela.


Neronek ere asko dut ikasteko. Ez da berdina ikasle bat edo 20 izatea gelan, eta kasu hauetan nola lan egin ikasi beharra dut. Denbora gehiago eskainiko nioke instrumentuari, honen bitartez lan asko egin baitaiteke (partitura landu, kantatu...) baina ikasgaiaren programazioa ere bete beharra dago eta astean 2 saio izanda ez dago gehiagorako tarterik.

Gustatuko litzaidake jakitea ea beste instituturen batean programa hau erabili ote den txistua DBH-n lantzeko eta, hala balitz, zein izan den emaitza. Baten bat balego, eta artikulatu hau irakurriko balu, mesedez jar dadila nirekin harremanetan. Honekin batera DBH-n lanean ari diren beste txistulari guztiak animatu nahi nituzke nik egin dudak saiakera burutzera. Zenbat eta gehiago izan instrumentua ume gehiagori iritsiko zaio eta gure artean harremanetan bageunde esperientzia partekatu ahal izango genuke. ●

### Musika saioetan txistua erabiltzea gustatu al zaizu?

52 erantzun


1



### Txistua jotzeko erabili den programa (txistu on-line) erakargarria iruditu zaizu?

52 erantzun


2



### Musika saioetan txistuari dedikatu zaion denbora...

52 erantzun


3



### Ikasitakoarekin etxean txisturik jo duzu?

52 erantzun

4



### Txistua jotzen ikasten ari zarela iruditzen zaizu?

52 erantzun

5

